

GAIA: Bizkaiko Ekologistak Martxan elkarteak aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaria

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusian aipatutako prozedura honi lotutako eskabidea jaso dugu. Hauek dira eskabideari buruzko datuak eta eskabidearen edukia:

- Interesduna: Bizkaiko Ekologistak Martxan (IFZ: G95136115)

- Helbidea: Pelota kalea, 5, behea, 48005 Bilbo

- Eskabidearen data: 05/10/2022

- Erregistro-data: 05/10/2022

- Eskabidearen edukia: Lertutxeko urtegiari buruzko informazioa eskatzea. Eskatzen da:

1. Leioako Lertutxe urtegiari buruzko erabakiak hartzeko prozeduran parte hartzeko eskubidea erabiltzea

2. Lertutxeko urtegiari buruz sortzen den ingurumen-informazioa bidaltzea: urtegiaren arriskuen balorazioa, biodibertsitatea, etab.

- Eskumena duen zuzendaritza nagusia: Ingurumenekoa

Eskaera horren edukia aztertu da, arau hauek ezarritakoaren arabera: *Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 28ko 2003/4/EE Zuzentaraua, jendeak ingurumen-informazioa eskuratzeari buruzkoa eta Kontseiluaren 90/313/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena; uztailaren 18ko 27/2006 Legea, ingurumen-arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituena (2003/4/EE eta 2003/35/EE zuzentarauak txertatzen ditu); eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea.*

ASUNTO: Solicitud de acceso a información pública, presentada por la asociación *Ekologistak Martxan Bizkaia*

Habiéndose recibido en la Dirección General de Medio Ambiente solicitud afecta al procedimiento anteriormente reseñado, cuyos datos y contenido resultan ser:

- Persona interesada: Ekologistak Martxan Bizkaia (NIF: G95136115)

- Con domicilio en: C/ Pelota, 5, bajo, 48005 Bilbao

- Fecha de solicitud: 05/10/2022

- Fecha de registro: 05/10/2022

- Contenido de la solicitud: Petición de información sobre el pantano de Lertutxe. Se solicita:

1º el ejercicio del derecho de participación en el procedimiento para la toma de decisiones sobre el embalse de Lertutxe, en Leioa

2º la remisión de información ambiental que se genere sobre el embalse de Lertutxe: valoración de riesgos del embalse, biodiversidad, etc.

- Dirección General competente: Medio Ambiente

De conformidad con lo establecido en la *Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia*, la *Directiva 2003/4/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 28 de enero de 2003, relativa al acceso del público a la información medioambiental* y por la que se deroga la *Directiva 90/313/CEE del Consejo*, la *Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente (incorpora las Directivas 2003/4/CE y 2003/35/CE)*, así como en la *Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi*, se ha procedido al análisis del contenido de la referida solicitud.



Ekologistak Martxan taldearen lehenengo eskaera, *Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen* 16.1 artikulua arabera legitimoa izanda ere, ez da hasitako eskaera-prozeduraren bidez ebatzen den informazio publikoa eskuratzeko eskaera. Eta, gaur egun, Zuzendaritza Nagusi honetan ez dago eskaeraren gaiari buruzko erabakiak hartzeko prozedurarik hasita.

Ekologistak Martxan-ek egindako bigarren eskaeran ez dago berau ez onartzeko edo mugatzeko *Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren* III. tituluan jasotako inolako arrazoirik. Hala ere, *ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen abenduaren 12ko 27/2006 Legearen* 13.1.a artikuluan ezarritako ingurumen-informazioa emateko betebeharraren salbuespena aplikatu behar zaio eskaerari; izan ere, une honetan, eskatutako informazioa EZ dago Zuzendaritza Nagusi honen edo haren izenean dagoen beste erakunde baten esku. Zuzendaritza Nagusi honek EZ du eskatutako informazioarekin lotutako administrazio-espediterik hasi izanaren BERRIRIK.

Hori dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan eta harekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa ezarritakoa, eta titular gisa ditudan eskumenak baliatuz, honako ebazpen hau ematen dut:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Ukatzea Bizkaiko Ekologistak Martxan elkarteak egindako ingurumen-informazioaren eskaera, abenduaren 12ko 27/2006 Legearen 13.1.a artikuluaekin bat etorriz (*27/2006 Legea, ingurumen-arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituena*).

Bigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea eta beronen berri ematea Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari.

La primera solicitud de *Ekologistak Martxan*, aun pudiendo ser legítima de conformidad con el artículo 16.1 de la *Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi*, no es una solicitud de acceso a la información pública que se resuelva mediante el procedimiento de solicitud iniciado. Y, actualmente, en esta Dirección General no hay iniciado ningún procedimiento para la toma de decisiones respecto al asunto de la solicitud.

En la segunda solicitud de *Ekologistak Martxan* no concurre ningún motivo recogido en el título III de la *Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia* para su inadmisión o limitación. Sin embargo, a la solicitud le es de aplicación la excepción a la obligación de facilitar la información ambiental establecida en el artículo 13.1.a de la *Ley 27/2006, de 12 de diciembre, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente*, ya que, en este momento, la información solicitada NO obra en poder de esta Dirección General, o en el de otra entidad en su nombre. Esta Dirección General NO tiene constancia del inicio de ningún expediente administrativo relacionado con la información solicitada.

Por ello, en cumplimiento de lo previsto en los artículos 18 y concordantes de la *Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia* y en ejercicio de las facultades de las que soy titular, vengo a dictar la siguiente:

RESOLUCIÓN

Primero.- Denegar la solicitud de información ambiental planteada por la asociación *Ekologistak Martxan Bizkaia*, de conformidad con el artículo 13.1.a de la *Ley 27/2006, de 12 de diciembre, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente*.

Segundo.- Notificar la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia.



Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa jar daiteke Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari buruzko gaietako Batzordean, hilabeteko (1) epean, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi kasuetan, ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Tercero.- Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción .

Sin./Fdo.: JOSU BILBAO BEGOÑA 2022-10-26
INGURUMENEN ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE

Akordioa/Acuerdo: R2 00431/2022 - Data/Fecha: 2022-10-26
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2022-10-26